



## PRENTSAURREKO OHARRA

### FederArte Debarock Festibala

#### **DEBAKO UDALTZEKO KIROL ZINEGOTZIA: AITOR SALEGI**

Gipuzkoako Surf Federazioa FederArte Debarock Festibala antolatzeko proposamena bota zigunean pozez hartu genuen eta eragile ezberdinekin hitz egin genuen ekintza hau aurrera eramateko. Eskertzekoa da Yako Debako Surf Eskola, Unai Uribeondo buru dela, Zurrumbilo Ur Kirol Elkarte, Iñaki Saenz zuzendaritzako kidea dena, eta Debarock partaideko Pablo Berrizbeitia, orain arte egin duten esfortzua. Udaletxeak nahi duena Festibal honekin surfa kirol bezala sustatzea eta Deba Gipuzkoa eta Euskadi mailan gehiago ezagutaraztea.

Udalak herritar guztiei animatzen zaituzte ekintza ezberdinetan parte-hartu eta egun alaia pasatzera.

#### **GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOKO PRESIDENETA: MAIALEN SAEZ**

FederArte EUSKAL SURF KULTURA zirkuitoaren erdira iritsi gera: Pro Zarautzakin hasi, Donostian Gipuzkoako Txapelketa ondoren eta orain Deban ospatuko deua buztuak 11an. Urrian Orion, Euskal Herriko SUP finala izango dugu eta urtea amaitzeko, Zumaian bodyboard frogarekin.

Orain dela bi urte, GSF-an konpetizio formatu berria bat eraiki genuen, non kirola eta surf kultura eskutik dihoaz. Gure helburua, beti onura ekonomikorik gabekoa, federatuei seguru bat baino gehiago ematea da. Federazioa desagertzeko zorian egon zenean surfisten komunitatearen krisi motibazionala zela eta, gure txapelketak surfa eta bere kulturaren eszenatoki paregabeen bihurtu ditugu egoera hobetu nahian.

Akordio desberdinak sinatu dira kultura sustatze honetan: EHSF-rekin proiektua gure lurralde osora zabaltzeko, Kutxa Kultur Fundazioarekin Tabakalerako aretoa ekintza desberdinak egiteko eta Katapultatza Tour Gipuzkoarekin, Diputazioa, Kutxa Kultur eta Jazzaldiaz osatutako erreferentziazko plataformaren babesa, hain zuzen ere.

Urte osoko lana suposatzen du 5 festibal hauek prestatzea baina Debakoa izaten ari da berezientariko. Debako herria betidanik egon da surfarekin oso lotuta. Kulturaren aldetik, herri oso aberatsa da bere diziplina desberdinetan. Gainera, aipatu beharra dago

orain dela gutxi Udaletxeak olatu haundiko txapelketa egiteko baimena eta esfortzu guztiak jarri zituela. Azpimarratu baita ere Zurrumbilo Surf Taldearen, Iñakiren eskutik, laguntzeko borondate eta ilusioarengatik. Esker mila Yako Surf Eskolari, gure kirola Debako bizimodua bihurtu duelako, eta herri honetako Stand Up Padel frogatik berak ekarri baitzuen Gipuzkoa eta Euskal Herriko Surf Federazioara.

GSF-ek festibalen bitartez harremanak estutu eta surflarien komunitatea indartzea du helburu. Surfaren kultura Euskal Herriko kulturaren kokatu eta bere tokia eman. Bestalde, ardatz oso garrantzitsuak landu: berdintasuna, ingurunearen zainketa eta kirol inklusiboa Gipuzkoa eta Euskal Herriko Kirol Egokituaren Federazioen kolaborazioarekin.

Benetan berezia izango da ekitaldi hau orain dela urte batzuk ospatzen hasi zen jaialdia gure egitarauan parte hartzeko aukera izan dugulako. Hau horrela izanik, eskerrak emateko moduan, FederArte DEBAROCK Festibala eman diogu izena. Baloratzeko ekintza da gazteek beraien talentua aurkezteko sortu duten plataforma hau. Beraien taldeek jarriko dute festibala amaitzeko giro paregabea. Beraz, udara bete betean, goizetik gaua arte aktibitate ugari, eguraldiaren arabera eszenatoki desberdinak eta hilabete askotako dedikazioez egin den lanaren emaitza disfrutatzeko aukera Abuztuak 1, larunbata, FederArte Debarock Festibalan.

## **DEBA ROCK KOLEKTIBOA**

Debarock Kolektiboa 2008an sortu zen herriko musika eszena indartu, Deba Euskal Herriko kontzertu zaleontzako gune erreferentzial bilakatu eta kontzertuak antolatzeke era alternatibo bat badagoela erakusteko.

Urtean zehar herriko eszena musikala indartzeko lanetan aritzen gara. Agirre jauregian dauden ensaio gelak kudeatzea, festetako kontzertuen antolakuntzan parte hartzea eta urte osoan zehar burutzen ditugun hainbat ekitaldi aurrera ateratzea izaten dira gure lan nagusiak.

Musikara perspektiba herrikoi batetik hurbiltzen den kolektibo bat gara, Debako talde eta musikariei irekia. Izan ere, azken urteetan Deban sortu diren musika talde gehienak kolektiboaren baitan jaio dira.

Aurte gure hamargarren urteurrena ospatzen gabiltza. Honetarako, herriko musika taldeen egoera eta lanaren erakusle izango den diska bat plazaratuko dugu abuzutuan. Diska autogestionatua eta autoekoiztua izan da prozesuaren aldi guztietan, eta diska aurrez saldu dugu herritarren artean produkzioaren kostuei aurre egiteko.

Bestalde, ospakizuna oholta gainera ere eramateko Abuztuaren 11an jaialdi bat proiektatu genuen Alamedan dagoen txosna gunean. FederArte Festibala ere egun

horretarako programatuta zegoela ikusita, Debarockek eta Gipuzkoako Surf Federazioak (GSF) egun horretarako prestatuak genituen programak elkartzea erabaki genuen, eta honela jaio da FederArte Debarock Festibala, gaur aurkezten duguna.

Egunean zehar GSF-k herriko eragile desberdinekin prestatutako programa burutuko da, eta iluntzean, berriz, Debarock-ek antolatutako kontzertuei hasiera emango zaie. Arratsaldeko 20:30etan Jokin eta Miquel izango ditugu eszenatokian, eta gaueko 23:00etan Kon-Kontrol, Strikers eta Brigade Locoren kontzertuez gozatzeko aukera izango dugu.

Debarock Kolektibotik herritar guztiak egun honetan parte hartzera gonbidatzen ditugu, beraien laguntza ezinbestekoa baita herriak musika eszena indartsu bat izaten jarraitu dezan.

## **YAKO DEBAKO SURF ESKOLA**

Yako Debako Surf Eskolaren kirol-filosofian bere hastapenetatik, duela zortzi urte, barneratu eta praktikan jartzen ditu helburu bezala Surfaren eta Stand Up Paddle-aren sustapenak. Uretako ekintza hauek egitasmo edota filosofia bat dute helburutzat, hala nola, ingurumenaren zaintza, pertsona guztien parte hartzea, gure hizkuntza eta hizkuntza atzerritarren erabilera bultzatzea eta batez ere, uretako kirolak guztion eskura jartzea eta inklusibotasuna bultzatzea.

Yako Surf Eskolak ekintza ezberdinak antolatu eta kanpo ekintza ezberdinetan parte hartzen du. Yako Surf Festa urtero egiten den ekintza izan ohi da, bertan Debako herriari eta inguruko herriei uretako ekintza ezberdinen praktika irakasten da. Baita ere, Debako Udalarekin, Debako Surfing Deba ekintza antolatzen da jarduera ezberdinak herritarron eskura jarritz eta guztion artean kirol jarduera hauek sustatuz. Horrez gain, Euskal Herriko Surf Federazioarekin eta Gipuzkoako Surf Federazioarekin elkarlanean ibili da Yako Debako Surf Eskola ekintza ezberdinak antolatu eta Debako herrian hauek antolatu dituzten jarduera guztietan, hala hola, Olatu Handien Txapelketan, Euskal Herriko Surfeko Zirkuitoa etab.

Oraingo honetan, FederArte Festibala antolatzeko gure laguntasuna eskatu digute eta gure filosofia edota ideologiarekin bat egiten duenez, Yako Surf Eskolak egun honetan parte hartuko du ekintza ezberdinetan. Ekintza horien artean, Stand Up Paddle-eko lasterketa popularra antolatuko dugu. Lasterketa honetan edozein pertsonak hartu dezake parte eta talde giroa eta partaidetza bultzatzeaz gain inklusibotasuna izango dugu ardatz. Irailean ere beste lasterketa bat egongo da, Euskal Herriko SUP Race Zirkuitoa, baina ekintza hau txapelketa bat izanik eta rider-en parte-hartzea bultzatzea helburu izanik, irailak zortzian egitea erabaki dugu. Beraz, ekintza guzti hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu eta laster arte!

## ZURRUNBILO UR KIROL ELKARTEA

Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteak 2001an sortu zen, herriko surf komunitateari kirol hau burutzeko erraztasunak ematea izan zelarik hasierako xedea, besteak beste, aspektu garrantzitsuenak aldatzeko toki bat eta federatzea zirelarik.

Gaur egun, 200 bazkide izatera iritsi gara. Helburuak lehengo berberak izateaz gain areagotzen joan dira. Lehenik eta behin, surfaren sustapen egokia eta herriari gure atak irekitzea izan da. Honetarako hainbat festa, klubeko egun eta ikastaro egin izan dira urte guzti hauetan zehar.

Bigarrenaz, surfak eskaintzen dizkigun eta guk elkartetik sustatu nahi ditugun hainbat balore herriari hedatzea dugu helburu. Berdintasuna eta emakumearen irudiaren indartzea esparru honetan, honetarako Emakumea Surflarirekin lan egiten dugularik eskutik helduta. Bestetik, guretzako garrantzitsua da ingurumenaren zaintzaren sustapena, "hondartza zaindu, etorkizuna zaindu" lema pean sortzen ari garen kanpainaren ildora. Bestalde, elkarlana, orain arte lortu duguna eta ildo beretik lortu nahi duguna eskuratzeko beharrezkoa duguna. Euskara, gure herriko hizkuntza den aldetik, hau defendatzeko egiten diren ekintza guztietan parte hartzen dugu.

Azkenik, Federazioekin egiten dugun elkarlanari buruz hitz egin behar dugu. Alde batetik Euskal Herriko Surf Federazioa dugu. Deban izan ditugun txapelketa guztien (Sorginetxe BigWave Erronka, EHko Zirkuituko OPEN froga eta EHko SUP Race-a) antolaketa izan delarik lan honen helburua. Ahaztu gabe, Federazio batek ematen dizkigun aukerak. Bestetik Gipuzkoako Surf Federazioa (GSF) dugu, bere gertutasuna dela medio, elkarrekin lan egiteko aukerak anitzagoak eta sarriagoak direlarik. Horietako bat eta deigarriena FederArte Debarock Festibala dugu, Debako Udala, herriko eragile ezberdinen artean eta GSFek antolatua izango dena, Zurrumbilo bertan lanean izango garelarik beste behin ere.